

KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEA KOSTALDEETAN ETA ITSASERTZETAN

Posted on 28/03/2025 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Adaptación y mitigación climática](#), [Áreas costeras](#), [Arintze eta egokitze klimatikoa](#), [Arrisku klimatikoak](#), [Kostaldeak](#), [Riesgos climáticos](#)

Orain gutxi proiektu garrantzitsu bat hasi dugu lhoberentzat: **"EAEko Batasunaren eta eskualdearen intereseko kostaldeko eta itsasertzeko habitatek klima-aldaketaren aurrean dituzten kalteberatasunaren eta arriskuen azterketa eta ekintza-planaren proposamena"**. [Azti](#) itsas ikerketako erreferentziazko zentroarekin batera, lehen mailako talde bat jarri dugu proiektuaren eskura. Bertan, ahulezian eta arriskuan, itsas dinamikan, egokitzeko neurrietan, biodibertsitatean eta ekintza klimatikoko planetan eskarmentu handia duten profesional zientifiko-teknikoak biltzen dira, Euskadiko kostaldean espezializatuak.

Datozen hilabeteetan **metodologia** kontrastatu bat diseinatu eta ezarriko dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren eta eskualdearen intereseko kostaldeko eta itsasertzeko habitatek klima-aldaketaren inpaktuen aurrean duten **kalteberatasuna** eta **arriskua** aztertzeke, bai eta, sortutako informazioaren arabera, **ekintza-plan** batean egituratutako eta lehenetsitako **egokitzapen-neurriak** proposatzeko ere.

Gainera, proiektuak kontuan hartuko ditu arintzeko potentziala, egokitzeko balizko neurriak eta bi ikuspegi arteko sinergiak, Euskadiko plangintza estrategikoaren eta legediaren klima-ekintzaren ikuspegi integralarekin bat etorritz.

